

ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOA / Merkataritza eta enplegua

Diru-laguntzen bidez merkataritza sustatzea

Nafarroako merkataritza-hiriburua den aldetik, Iruñean ugaria eta askotarikoa da hiri-merkataritza, zeina funtsezkoa baita Iruñeko gizarte- eta ekonomia-jarduera bultzatzeko. Iruñeko eginkizuna Nafarroako merkataritza-buru nagusi gisa sendotze aldera, Udalak hainbat diru-laguntza ezarri ditu.

Deialdietako batek merkatori-elkarteak laguntzen ditu diruz, **merkataritza dinamizatu eta sustatzeko jarduerak** egin ditzaten. 86.000 euroz horniturik dago, eta 82.982 € deialdian aurkeztu ziren eremuko zazpi merkatori-elkarte hauen eta sektoreko elkarte baten artean banatu ziren: Iruñeko Alde Zaharreko Merkatori Elkarte (CCA), Iruñeko Zabalguneako Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuetako Enpresaburuen Elkarte, Arrotxapea Erdialdeko Merkatori Elkarte, El Salvador Merkataritza eta Ostalaritza Elkarte, Iruñeko Martín de Azpilcueta aldeko Merkatori Elkarte, Mendillorriko Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkarte, Iturramako Merkatori Elkarte eta enpresaburu Harakinen eta Urdaigileen Probintzia Gremioa. 36 jarduera aurkeztu ziren, eta 32k laguntza jaso zuten. Azkenik, 29 jarduera egin ziren, eta 65.128 euro jaso zituzten.

Bigarren laguntza-ildoak merkataritzara bideratua dago, hala **jarduera berriak ezartze aldera** (A ildoak) nola establezimenduetako instalazioak eta ekipamenduak **modernizatu**, erreformatu eta berritze aldera (B ildoak) edota Iruñeko **Udal Merkatuetan** inbertitze aldera (C ildoak). Udalak 246.000 euro bideratu zituen deialdi horretara. 73 eskari jaso ziren, eta horietako 30i eman zitzaizen laguntza. Zehazki, A ildora 216.914,33 euro bideratu ziren, 22 denda berrirantz; B ildora, 27.908,25 euro, 7 enpresarentzat; eta C ildora, 1.177,42 euro, Zabalguneako Udal Merkatuko establezimendu baterako. Justifikazio-kontuak aurkeztu ondoren, 229.757 euro ordaindu ziren.

Hitzarmenen bidez finantzatutako jarduerak

Laguntza-deialdiez gain, hitzarmenak sinatzen dira berariazko ekintzak sustatzeko; **Enpresendako Leihatila Bakarra**, adibidez, Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmen baten bidez finantzatzen da. Leihatilak enpresa-jardueraren sustapena bultzatzeaz gain, enpresak sortzea ere sustatzen du. 2012an, Iruñeko egoitzak 102 kontsultari erantzun zien eta zuzenean 122 enpresaren sorreran esku hartu zuen.

	2008	2009	2010	2011	2012
Merkatarien elkarteendako					
laguntza-deialdia	60.000	60.000	60.000	60.000	86.000
Diru-laguntza izendunak	65.000	65.000	69.000	45.707	36.785
Merkataritzaren arloko					
enpresendako laguntza-deialdia	900.000	900.000	900.000	943.357	246.000
Merkataritza dinamizatu eta sustatzeko kanpainak	525.300	395.000	498.000	319.944	302.981
Iruñeko udal-merkatuen					
marketin-plana	110.210	108.200	108.300	84.000	51.965
Enpresak Sustatzeko					
Zerbitzua	372.600	382.129	384.314	379.266	371.252



Azken hamar urte honetan bezala, Iruñeko Udala elkarlanean aritu zen Don Diego de Haro Nafarroako Liburu Merkataritzako Enpresaburuen Elkartearekin, Iruñeko Liburu Azoka egiteko, iruindarren artean irakurtzeko aztura sustatze aldera eta irakurzaletasuna eragiteko jarduerak bultzatze aldera. 2012ko XI. Liburu Azokan, 11 liburu-dendak parte hartu zuten.

Bestalde, 5.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion El Salvador Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteari, Iturramako Merkataritza Elkarteari, Mendillorriko Merkataritza Elkarteari eta Martín de Azpilcueta aldeko Merkataritza Elkarteari, 2012-13ko Eguberrietan jarduerak antolatzeagatik. Besteak beste ondoko jarduerak egiten dira: zozketak, establezimenduak apaintzeko lanak, haurrendako jarduerak, dastaketak, erosketa-txartelak, etab.

Europako Gizarte Funtzaren laguntzak

Hiri Biziberritzerako *Milagrosa Hiri Ekimena* Iruñeko Udalak gidatutako ekintza bat da, FEDER-Eskualde Garapenerako Europako Funtsekin batera finantzatua. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Alorrak gidatzen ditu auzo horretako merkataritza- eta zerbitzu-jarduerak hobetzen eta berreskuratzen laguntzeko jarduketak. Proiektuaren plangintzak hiru jarduketa-ildo izan zituen 2012an oinarri: enpresendako eta enpresa-sortzaileendako aholkularitza, prestakuntza-ekintzak eta establezimenduen irudiaren tratamendua.

Merkataritza dinamizatu eta sustatzeko kanpainak

Iruña Stock Aukera FERIA Iruñeko Udalak antolatzen du Nafarroako Merkataritza Establezimenduen Federazioarekin elkarlanean, eta, seigarren edizioa 2012ko martxoaren 1etik 4ra bitarte egin zen. 2012ko edizioan, 65 dendak parte hartu zuten, 23 stand bikoiztetan eta banakako 30etan banaturik. Feriak 36.348 bisitari jaso zituen.

Liburuaren eta Lorearen Eguna letren nazioarteko egunean egiten da, apirilaren 23an, alegia. Hirugarren urtez jarraian, Karlos III.aren etorbideko

oinezkoendako eremuan egin zen, Orreaga etorbidearekiko elkargunean. Hamahiru liburu-dendak jarri zituzten postuetan % 10eko deskontuak eskaintzen ziren eta bezeroei loreak oparitzen zizkieten.

Merkataritzarekin, hiria, hiriago ekimenak hasierako ideari eutsi zion, hau da, kaleak merkataritzari begira duen balioa nabarmentzeari. Hona programatu diren jardueren helburuak: merkataritzaren irudia hobetzea, bere presentzia sustatzea hiriaren bizitzan eta bezeroen fideltasunari eustea auzoko dendekin. Udalak merkataritza-elkarteekin batera antolatzen du programa hori. Hona elkarteak: Mendillorrikoa, Zabalguneako Merkataritza Eremukoa, Arrotxapea Erdialdekoa, Alde Zaharrekoa, Martín Azpilcueta Aldekoa, El Salvador Arrotxapekoa eta Iturramakoa. Maiatz eta ekaineko sei astez adin guztiendako jarduerak izan ziren, hala nola haurrendako lantegiak, puzgarriak, ur-zezenak, ekozikloak edota musika. Kontzertuak ere egin ziren, besteak beste Amaia Romero artistarekin. Halaber, aurten lehenbiziko aldiz *Gau Zuri Gorria* jardura egin zen, ekainaren 29an, Alde Zaharreko Merkataritza Elkartek bultzaturik. Sustapen bereziak izan ziren, modelo desfileak kalean, lehiaketak, etab.

Espainiako Itzulia Iruñetik abuztuaren 18an abiatzeko zela eta, lankidetzak-kanpaina bat antolatu zen merkataritza-elkarteekin batera, *El centro de la vuelta* izenburupean, zeinean 10.000 sarrera banatu baitziren Oreja de Van Gogh taldearen kontzerturako eta 24 bizikletaren zozketan parte hartu zen.

Hiru Burguen Erdi Aroko Merkaturia irailaren 7tik 9ra bitarte egin zen 2012an. Alde Zaharreko karriketan 100 postu jarri ziren eta askotariko gauzak eskaini zituzten: txokolateak, hestebeteak, ardoak, gaztak, opilak, barkilloak, marmeladak edota sendabelarrak. San Frantzisko plazan, bestalde, Erdi Aroko taberna paratu zen. Horrekin batera, antzinako lanbideen erakusketa egin zen: ontzigileak, zeramikagileak,





MERKATARITZA

SUSTATZEKO JARDUERAK

	2008	2009	2010	2011	2012
Iruña Stock aukera-feria	32.000	46.000	46.000	34.783	36.348
Liburuaren eta Loreen Jaia (banatutako loreak)	-		1.500	1.500	1.500
Lore-banaketa:					
"Merkataritzarekin, hiria, hiriago"	1.500	750	1.600	1.500	4.200
Hiru Burguen Erdi Aroko merkatua (postu kopurua)	52	102	102	102	102
Eguberriko azoka (postu kopurua)	29	29	27	25	27

kopistak, zilarginak, lurringileak, zurginak, zapatariak eta mago bat. Halaber, falkoneria-erakustaldi bat eta ardi-mozte saio bat egin ziren. Era berean, **Batasunaren Pribilejioa** ospatzeko ekitaldien artean, Alde Zaharreko Merkataritza Elkarteak bere sustapen bereziak egin eta, egun horretarako, kaleak eta establezimenduak apaindu zituen.

Kale Nagusia Bizitza Hutsa ekimena merkatariek Iruñeko erdiguneko kale hori dinamizatu beharra ikusten zutelako sortu zen. Kale Nagusia San Zernin Burgu zaharraren karrika nagusia izan zen, bai eta Donejakue Bideko eta jaietako zati nagusia ere. Ekimen honetan ondoko jarduerak egin ziren: kalea apaintzea, dendak identifikatzea, erakusleihoak nabarmentzea eta marketin zein animazioko jardura berritzaileak egitea.

Iruñeko Udalak, Alde Zaharreko, Zabalguneko, Mendillorriko eta Iturramako merkataritza-elkarteekin elkarlanean, merkataritzaren aldeko kanpaina bat abiarazi zuen 2012ko bukaera aldean, **Emadazu ideia bat opari** lelopean. Horren bidez, bezeroen parte-hartzea sustatu nahi izan zen, merkataritzaren irudia hobetzeko iradokizunak edo ideiak eman zituzten. Jendearen parte-hartzea sustatze aldera, ideia onenendako hiru sari ezarri ziren, bakoitza 200 euroz hornitutakoa, eta 50 euroko 50 txekere ere zozketatu ziren.

Eguberrietako argiztapenak eta apaintketak nobedade bat izan zuten 2012-13 kanpainan; egun

horietan, izan ere, arku gehiago paratu ziren argiztapen berezirik izan ohi ez duten Alde Zaharreko eta Zabalguneko kaleetan, etorbideetako faroletan ere apaingarri gehiago paratu ziren, eta San Frantzisko plazan 8 metroko garaierako zuhaitz berri bat jarri zen. Argiak azaroaren 29an piztu ziren, San Saturnino egunean, eta urtero bezala, urtarilaren 6a arte iraun zuten pizturik. Argiarekin batera, Udalaren eguberri-irudiak aipatu behar dira, Iruñeko erdigune aldeko eta Martín Azpilcueta kaleko 400etik gora dendatan banatutakoak.

Egun horietan, beste urte batez ere, **Gazteluko plazan Eguberriko Azoka** egin zen, non garrantzi berezia ematen baitzaio Eguberrietako produktu tipikoen artisautzari, beste azoka batzuen osagarri, eta sektorea sustatze aldera. 16 egunez 27 etxola paratu ziren eta 19 lantegi egin ziren; gehienbat, haurrei zuzenduak.

Eguberrietan merkataritza hiriko beste alde batzuetan ere dinamizatzen da, hala nola Alde Zaharreko, Zabalguneko, Martín Azpilcueta, El Salvador Arrotxapeko, Mendillorriko eta Iturramako Merkataritza Elkartearen eremuetan, non Udalak hainbat jardura sustatzen baititu. Hainbat eremutan banaturik, badira zaldiko-maldiko bat, txurro-denda bat, eski-pista bat, zinema-emanaldiak, haur jokoak, zozketak eta bola erraldoi ibiltari bat. Horrez gain, kaleak apaindu eta 12 metroko garaierako zuhaitz bat ezarri zen.

	2008	2009	2010	2011	2012
Bisita gidatuak, ikastetxeendako					
Ikasle kopurua	1.095	1.526	2.000	1.617	1.000
Solasaldiak: nutrizioa, gastronomia, etab.					370
Merkatuen agenda (2009) egutegia (2010 eta 2011)	-	2.000	9.800	14.000	
Osasunako jokalarien bisita	-	-	-	570	600

Udal-merkatuak

Iruñean hiru udal-merkatu dira: Zabalguneko, Ermitagañako eta Santo Domingoko merkatuak Udala elkarlanean aritzen da merkatuekin, prezio lehiakorak dituzten elikagai osasungarri eta kalitatezkoen erreferentzia izan daitezten. Merkatuetan, **prestakuntza-, sustapen- eta animazio-jarduerak** egiten dira. Esate baterako, ikasleendako bisita gidatuak mantendu dira; haurrendako nutrizioari buruzko solasaldiak egiten dira Supersunny izenburupean, edota niniendako nutrizioari buruzkoak, Biberotik platerera izenarekin; loreak oparitzen dira udaberriaren etorrera ospatzeko, eta ekainean, ikasturte bukaerako jaia antolatzen da Merkatuetako tribiala jokoaren bidez.

Era berean, bezeroen artean oihalezko poltsak banatzen dira, doan banatu ere, eta plastikozko poltsak saltzetik biltzen den dirua Pobreen Ahizpei ematen zaie, Eguberrietako janarietarako erabil dezaten; Osasunako jokalariekin bisitak eta zozketak antolatzen dira eta, urteari bukaera emateko, egutegiak banatzen dira.

Enpresak Sustatzeko Zerbitzua (ESZ) Iruñeko Udalaren ekimena da eta lwer eraikinean kokatua dago (Marcelo Celayeta etorbidea 75, 4A sarrera). Hainbat helburu ditu: enpresak sortzen eta finkatzen laguntzea, Iruñeko enpresa-sarea sendotzea, merkataritzarekin eta turismoarekin lotutako enpresei arreta berezia eskaintzea, azterlanak egitea eta

Iruñeko Udaleko Kontsumitzailearen Informaziorako Guneaz arduratzea. Zerbitzuaren lana ezagutzera emateko, 2012an ESZk are gehiago jardun zuen sare sozialetan (Facebook, Twitter eta Google Places), eta dagoeneko, adibidez, 401 lagun ditu Facebooken, eta 333 jarraitzaile, Twitterren.

Enpresak Sustatzeko Zerbitzuak 274 *proiektu berri* eman zien aholkularitza 2012an. Guztira, 16 aholkularitza-eskaerari erantzun zitzaion; gehienbat merkataritzara zuzendutako eskualdatzeekin lotutakoak (% 69); gero, ostalaritzakoak (% 12) eta zerbitzuetakoak (% 19). Egindako aholkularitza-lanek 19 bideragarritasun-plan egitea eragin zuten. Horrez gain, besteak beste, 15 aholkularitza-saio egin ziren enpresa bat abian jartzeko eman beharreko pausoei buruz eta beste 4 enpresa-planari buruz. 2012an, 34 enpresa sortu ziren, ESZk lagundurik. Haietariko 21 zerbitzuen sektorekoak izan ziren; 7, merkataritzakoak; 4, ostalaritzakoak; 1, aisiakoa, eta 1, IKT arlokoa. Enpresa berri horien % 50en titularrak emakumeak izan ziren. Guztira, 56 lanpostu sortu zituzten.

Jadanik sortu diren enpresei laguntze aldera, zerbitzuak salmenta guneei buruzko aholkuak eman eta hainbat ikastaro antolatzen ditu: merchandising, berrikuntza, internet bidezko salmenta, Google Adword, bloga nola sortu, sare sozialetan jardutea, etab. Guztira, 100 prestakuntza-ordu izan ziren, eta 454 lagunek parte hartu zuten.





	2008	2009	2010	2011	2012
Zerbitzuko bazkideak	1.512	1.695	1.844	1.990	2.208
Aholkularitza proiektu berrietan	208	165	308	233	274
Sortutako enpresak	32	16	24	37	34
Bideragarritasun-planak	34	16	50	57	19
Parte-hartzaileak prestakuntza- eta dibulgazio-jardueretan	652	543	469	627	849
Multimedien erabilera, ordutan	1.721	2.158	3.218	3.072	5.405
Liburu-maileguak	827	441	518	351	346
Eskola-ume bisitarien kopurua	113	99	131	141	116

Zerbitzuak, bestalde, 200etik gora kontsultari erantzun zien *Udalak* merkataritzarendako eta enpresa-sortzaileendako egiten dituen *deialdiei* buruz; berariazko aholkularitza eman zien teknologia berrietan online marketinari buruzko ikastaroetan aritutako 23 enpresa-proiektuari eta IKTetan berariazko 7 aholkularitza egin zituen.

Iruñeko enpresa-ehuna hobeki ezagutzeko, zerbitzuak *ikerlanak eta azterlanak* egiten ditu eta, datuak oinarri harturik, jarduketa-planak egiten ditu, bai eta, era berean, oro har enpresa-sustapenarekin eta, bereziki, merkataritza eta turismoa dinamizatzearekin lotutako txostenak eta analisiak ere. Horrela, adibidez, lan-alorrek atzeman eta jarduera sortzea sustatzen duten jarduketak diseinatu nahi dira, bai eta egindako jarduketan eragina ebaluatu ere.

Zerbitzuak *liburutegi eta mediateka* bat dauka, 1.000 agiri baino gehiagoz osatua, ondoko gaiei buruz: negozio-ideiak, enpresen kudeaketa, merkataritzaren arloko ikerketa, arauak eta laguntzak, emakumea eta erakundeetako informazioa. Horrez gain, hemeroteka handia dago enpresa-munduan espezializatua. Gune multimedia bat ere eskaintzen du; bertan, auto-prestakuntzako ikastaroak egiten dira hala enpresen kudeaketari eta zuzendaritzari buruz nola giza baliabideei eta marketinari buruz; halaber, badaude enpresei eta negozio-ideiei buruzko datu-baseak eta

zenbait lan-tresna bideragarritasun-plan bat prestatzeko, zerga-liburuak betetzeko edo bezeroen datuak babesteko. Internet bidez, katalogoan sar daiteke. Liburutegiak 2.208 bazkide ditu.

Zerbitzuak, gainera, instalazioak *dohainik lagatzen* jarraitzen du, enpresa-sortzaileek, enpresek eta elkarteek erabil ditzaten.

Iruñeko Udalaren **Kontsumorako Argibide Gunea** 2010eko apirilean abiarazi zen. Enpresak Sustatzeko Zerbitzuaren ardura da, eta bere helburua argibide arloko oinarrizko zerbitzua eskaintzea eta kontsumitzaileen erreklamazioei erantzutea da. Horrela, kontsumitzaileari erreklamazio-prozesuan ematen zaio aholkularitza (zer dokumentazio aurkeztu behar duen eta zer entitateri zuzendua) eta, ahal denean, kontsumitzailearen eta enpresaren arteko bitartekaritza-zerbitzua eskaintzen da. 2012an, kontsumoari lotutako 9 kontsulta erantzun zituen, 52 enpresari erreklamazio-orriak eman zizkien eta ikastaro bat eman zuen.

Iruñeko Udalak **Merkataritzaren Behatokia** sortu zuen, ikerketarako eta lanerako esparru baten gisara sortu ere, zerbitzuen eskaintza eta eskura dagoen informazioa zabaltzeko, betiere txikizkako merkataritza-jarduera ahalik eta hobekien garatze aldera. Hona hemen bere lau lan-ildoak:

informazioa, Zure Enplegua Sortu GIS, kontsultak erantzutea eta lan-taldeetan parte-hartzea.

Adierazleen eta txostenen arloan, 2012an txostenak prestatzen segitu zuen, Iruñean eskura egon daitezkeen lokaletako eta beheko solairuetako enpresa-jarduerari buruz, hiriaren bilakaeraren berri izateko lanabes gisa. *Zure Enplegua Sortu GIS* informazio geografikorako sistemak gizarte eta ekonomia arloko izaera du. Merkataritzaren Behatokiako teknikariek beren analisi-lanaren zati bat lanabes horren bidez egiten dute, eta horrez gain, jendearen eskura dagoen baliabideetako bat da, Iruñeko ekonomiari eta demografiari buruzko informazioa kontsultatzeko eta ikusteko. 2012n, lau eguneratze egin ziren. Bestalde, 45 kontsulta erantzun ziren ekonomia-jarduerari buruz, eskura dauden lokalei buruz edo biztanleriari buruz.

2009ko apirilaren 2an, Iruñeko Udalaren Udalbatzak **Iruñeko Merkataritzaren Mahaia** sortu eta abian jartzea erabaki zuen. Udaleko eta udal-talde politikoetako ordezkariak osatzen dute, bai eta merkatarari-elkarteetako eta udal-merkatuetako ordezkariak ere. 2012an aztertutako gaiak, besteak beste, Merkataritzaren Behatokiak egindako txostenak, Iruñeko Merkataritzan Jarduteko Plana eta merkataritza-sektorearendako laguntza-deialdia dira.

